

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

- 1 • Euskararen Aholku Batzordea berriturik
- 2 • PERTSONAIAK
Gotzon Lobera
Lore Leanizbarrutia

• LABURRAK
Bilingüismo y Educación en el País del Euskara
"Irabazleak behar ditugu"
- 3 • Saramago euskaraz
- 4 • Office 2000, salgai
• Europako Proiektua

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA berriturik

Batzorde Osoaren lehen bilera Ibarretxe Lehendakariaren zuzendaritzapean



ZALDI ERO

Joan den hilaren 13an bildu zen lehen aldiz Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Oso berritua, Juan José Ibarretxe Lehendakariaren gidaritzapean.

Aurreko legealdikoarekin erkatuz gero, aldaketa ugari gertatu da Batzorde Osoaren eraketan. Herri-aginteen izenean datozen kideen kasuan, Jaurlaritzako eta foru-aldundietako ordezkari berriak izendatu dira. Herri-aginteetatik kanpoko kideen kasuan, berriz, kide-kopurua areagotu egin da: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egin zuten kideetako batzuek Batzorde Osoan jarraitzen dute, etenik sor ez dadin; hala ere, lagun berriak sartu dira EBPNren garapenaren jarraipena hobeto ziurtatzeko; bestalde, oraingo Batzorde Osoan, pisu handiagoa eman nahi izan zaio gizarte-ekimenari, eta, azkenik, EBPNn ageri diren jardun-eremuetan ari diren kideen presentzia sendotu egin nahi izan da, batik bat esparru sozioekonomikoan eta euskarazko komunikabideetakoan.

Hori horrela, Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak 52 kide ditu; herri-aginteetako 13 ordezkari, Euskaltzaindiko 1 eta Kultura sailburuak hizkuntza-normalkuntzaren prozesuan eraginik duten arloetako pertsona ezagunen artean izendatutako 38 aditu. Lagunok izendatzeko orduan, lehen aipatutako arrazoiez gain, kontuan izan da oso gizezkoak zein emakumezkoak egotea eta lurralde guztietako kideak izatea. Hortaz, kideon artean, Arabako 3 kide daude, Bizkaiko 15, Gipuzkoako beste 15, Iparraldeko 2 eta Nafarroako 3 lagun.

EABn, bestalde, lehendik lanean ari diren Batzorde-atal Iraunkorraz, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeaz, Toponimiako Batzorde-atalaz eta Lege-garapeneko Batzorde-atalaz gain, beste hiru batzorde-atal berri eratu dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren jarraipena egiteko: Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atala; Euskararen aldeko Auzogintza eta Zerbitzugintzaren Jarraipenerako Batzorde-atala; eta Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atala. Batzorde-atalotako buru dira, hurrenez hurren, Erramun Osa, Iñigo Urkullu eta Joxerra Garzia.

Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea, urtea amaitu baino lehen berriztatuko da eta, orain arteko egitekoei eutsiz, herri-erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana bideratzeko lanari ekingo dio.

Batzorde-atal Iraunkorra dela eta, zenbait aldaketa egin dira orain arteko eraketa-moduarekiko. Izan ere, orain arte 10 kide izan ditu: Lehendakaria, Kultura sailburua, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Hezkuntza Saileko ordezkaria, EABko idazkaria eta Euskal Herrietako ordezkariak (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrikoa). Oraingoan, lehengo kide guztiez gain, EABn diren batzorde-atal guztietako buruak ere Iraunkorreko kide izatea erabaki da. Beraz, guztira, 15 kide ditu.

p e r t s o n a i a k

EUSKARA ZUZENDARI BERRIAK DIPUTAZIOETAN

Bi izen berri ageri dira EAeko diputazioetako euskara zuzendaritzetan: Bizkaian, Gotzon Lobera; Gipuzkoan, Lore Leanizbarrutia.



ZALDIERO

GOTZON LOBERA

Zuzendaritza berria

Lehen aldiz euskara zuzendaria izendatu dute Bizkaiko diputazioan. Orain artean, euskarari zegozkion lanak hainbat erataraz bideratu dira. Batetik, funtzionarioen eta langilegoaren euskalduntzea lehendakaritza sailetik zuzendu da. Bestetik, euskararen promozio, produkzio eta zabaltze-lanak kultura departamenduaren mende izan dira.

Euskara zuzendaritza berriak diputaziotik egiten diren ahalegin denak koordinarazi nahi ditu, bi helburu lortzearren. Lehen, euskararen promozio eta ikerketak bultzatzea hizkuntza gutxien zabaldurik dagoen eremuetan. Bigarrena, euskararen kalitatea zaindu eta hobetzea eremurik euskaldunenentan, euskararen erabilerari dagozkion oharrak ematearekin batera.



ZALDIERO

LORE LEANIZBARRUTIA

Normalizazio garaia

Lore Leanizbarrutiak 25 urte darama euskara munduan lanean. Oñatiarra da eta ikastolan eta euskaltegietan jardun du orain arte. Gipuzkoako diputazioaren Euskararen Normalkuntzarako Zuzendari berriak aro berri baten atarian gaudela dio: normalizazioarenean.

Azken aldian, Gipuzkoako diputazioa funtzionarioak euskalduntzen saiatu da batik bat. Egun, euskalduntze mailak eta langileen hizkuntz profilak lortzen ari dira. Zuzendari berriaren iritziz, eta gazteak gehienbat eredu elebidunetan ikasten ari direla kontuan harturik, beren beharrei erantzuteko garaia da, euskararen erabilera bultzatuz eskolaz kanpoko ekintzetan. Horretarako, Euskara Zuzendaritza Gipuzkoako udaletako euskara teknikariak koordinatzen egingo du lan, ahaleginak batean bilduz eta gazteei -eta gizarteari, orobat-, euskaraz batera eragozpenik bizitzeko aukera emateko.

laburrak

Bilingüismo y Educación en el País del Euskara

ZALDIERO

Euskal Herriko Unibertsitateko pedagogia irakasle Felix Etxeberriak liburu bat argitaratu berri du. Izenburua, *Bilingüismo y Educación en el País del Euskara*. Liburu honen ataletan hainbat gai jorratzen ditu egileak. Tartean dira honakoak: elebitasunaren definizioa; hezkuntza elebidunaren eboluzioa; Europako politika eta hezkuntza elebiduna; Espainiako, Frantziako eta Euskal Herriko hizkuntz politikak; elebitasuna eta hezkuntza Euskal Herrian, eta hezkuntza elebidunaren eboluzioa Euskal Herrian.



"Irabazleak behar ditugu"



"Kirola Euskaraz" Deba arroan sortu zen. Sei urte daramatza kirolaren arlo guztietan euskara bultzatzen. Horretarako ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak eta topaketak antolatu izan ditu, eta kirol materiala argitaratu, euskaraz. Oraindik orain, berri, programaren arduradunek dei berria egin dute: "Irabazleak behar ditugu". Lelo horren bidez, partidu eta entrenamenduetan euskaraz hitz egiten duten kirolariak behar dituztela esan nahi dute. "Kirola Euskaraz" programak Bergarako Udal Kirol Zerbitzuan du egoitza. Tel.: 943.779167.

Saramago euskaraz

Historia do cerco de Lisboa, Literatura Unibertsala bilduman



Iazko Literatura Nobel saridun José Saramago Bilbon izan zen bere *Historia do cerco de Lisboa* liburuaren itzulpenaren aurkezpena aitzakia. Literatura Unibertsala bilduman argitaratu da eta Lisboako setioaren historia du euskarazko izenburua, Jon Alonso idazle eta itzultzailearen bertsioan.

Nobel sariduna ez zen luzaro izan Bilbon: bost orduz besterik ez, horietarik gehienak Bidebarrieta Kulturgunean, itzulpena aurkezten eta hitzaldia egiten. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte EIZIE izan zen ekitaldiaren antolatzailea. Izan ere, *Lisboako setioaren historia*, Literatura Unibertsala bildumako 83. titulua da. Bilduma honek 1989an hasi zuen bere ibilbidea, EIZIEK eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak literatura unibertsaleko ehun titulu euskaratzea hitzartu zutenean.

Jon Alonso itzultzaileak aurkezpen egunean adierazi zuenez, Saramago euskarara itzultzea maila bereko beste edozein lan euskaratzea bezain zail da. Horren arabera, *Historia do cerco de Lisboa* ez luke berezko zailtasunik; aldiz, itzulpen denek lituzkete antzeko korapilo bihurriak. Hala ere, zer edo zer azpimarratzekotan, idazle portugaldarraren sintaxia izan da arazorik menderagaitzena, nahiz eta hori gainditzeko idazleak erakutsi izan duen jarrera ona erabateko laguntza gertatu Alonsori.

José Saramagok ere itzultzailearen lana goraiatu zuen, esanez: "Azken itzulpena prozesuaren kalitatearen maila berekoa baldin bada, itzulpena bikaina dela esan nezake orduan. Kasu arraro horietako bat izango da, zera esateko moduan izango bainaiz: 'Itzulpen hau ona da, baina nik ez dut hitz bat bera ere ulertzen. Baina ona dena badakit'".


Itzultitako nobelari buruz, zera ere esan zuen idazleak: "Esan beharrean nago eleberri honek ez zuela arrakasta handirik izan argitaratu zenean, ez delako lan erraza, zail xamarra baizik. Hala ere, esan nezake liburu honetan gorderik direla nik bizian idatzi izan ditudan orrialderik onenak".

LITERATURA UNIBERTSALA bildumako 83 titulu

- Jonathan Swift: Gulliver-en bidaia
- Abbé Prévost: Manon Lescaut
- Anton Tšekhov: Ipuinak
- Mark Twain: Huckleberry Finn-en abenturak
- Rudyard Kipling: Kim
- Joseph Conrad: Illunbeen bihotzean
- Knut Hamsun: Gosea
- Leonardo Sciascia: Hontzaren eguna
- Robert Louis Stevenson: Altxor uhartera
- Truman Capote: Eskerregite eguneko bisitaria
- Leon Tolstoi: Ivan Iltxen heriotza
- Miguel de Unamuno: Abel Sánchez
- E.T.A. Hoffmann: Ipuin fantastikoak
- James Joyce: Artistaren gaztetako portretak
- Jean Cocteau: Ume terribleak
- Italo Calvino: Marcovaldo edo urtarokak hirian
- E.M. Forster: Aingeruak nekez ausartzen diren tokian
- André Gide: Inmoralista
- Jaroslav Hasek: Xveik soldadu onaren menturak I
- Herman Hesse: Peter Camenzind
- Thomas Mann: Herioa Venezian
- Saul Bellow: Heldu orainari
- J.W. von Goethe: Hautapen-ahaidetasunak
- Julio Cortázar: Oktaedroa
- Eça de Queiroz: Mandarin zaharra
- W. Faulkner: Hotsa eta ardaila
- Cesare Pavese: Muinoko etxea
- G. García Márquez: Koronelari ez dio inork idazten
- Thornton Wilder: San Luis Reyren zubia
- Albert Camus: Izurria
- Gustave Flaubert: Madame Bovary
- Alberto Moravia: Erromako emakumea
- Virginia Wolf: Farorantz
- Fiodor Dostoievski: Jokalaria
- Jaroslav Hasek: Xveik soldadu onaren menturak II
- Heinrich von Kleist: Michael Kohlhaas
- D.H. Lawrence: Birjina eta Ijitoa
- Montesquieu: Persiar Gutunak
- Günter Grass: Katua eta saga
- John Steinbeck: Zeruko belardiak
- Yukio Mishima: Arratsaldeko atoiuntzia
- Charles Dickens: Garai latzak
- Rafael Sánchez Ferlosio: Alfanhui
- Giuseppe Tomasi di Lampedusa: Gattopardo
- Maxim Gorki: Ama
- A. von Chamisso: Peter Schlemihl-en istorio miresgarria
- Denis Diderot: Hau ez da ipuina
- James Baldwin: Zoaz mendira aldarrikatzera
- Robert Musil: Törlöss ikaslearen nahasmenduak
- Mikhail Jurievitx Lermontov: Gure garaiko heroia
- Jane Austen: Harrotasuna eta Aurrejuzkuak
- Raymond Queneau: Zazie metroan
- Luzio Apuleio: Urrezko astoa
- Marguerite Duras: Maitalea
- Aleksandr Sergeievitx Pushkin: Kapitainaren alaba
- Alvaro Cunquero: Han-hemengo jendea
- Marguerite Yourcenar: Ekialdeko Kontakizunak
- Honoré de Balzac: Goriot Zaharra
- Pierre Choderlos de Laclot: Harreman arrakatsuak
- Herbert George Wells: Gizon Ikusezina
- D.A.F. de Sade: Justine edo Bertutearen zorigaitzak
- Cesare Pavese: Bizitza lanbide
- Henry James: Europarrak
- Daniel Defoe: Robinson Crusoe
- Graham Greene: Giza Faktorea
- Gilbert Keith Chesterton: Ostegun izan zen gizona
- Giorgio Bassani: Finzi-Continarraren lorategia
- Hans Christian Andersen: Hemeretzi ipuin
- Jorge Amado: Jubiabá
- Zenbait poeta katalan: Antologia
- L. Sterne: Bidaia sentimental Frantzia eta Italia zehar
- Italo Svevo: Bidaia sentimental laburra
- Manuel Mujica Lainez: Zazpi demonioen bidaia
- Madame de La Fayette: Clevesko Printzesa
- K. Mansfield: Lorategiko festa eta beste kontakizun batzuk
- Sidonie Gabrielle Colette: Mari-Alderrai
- Jorge Luis Borges: Ipuin hautatuak
- Ismail Kadare: H. dosierra
- Nikolai Vasilievitx Gogol: Arima hilak
- John Dos Passos: Manhattan Transfer
- George Sand: Negu batez Mallorcan
- Ivan Sergeievitx Turgenev: Aita-sembleak
- José Saramago: Lisboako Setioaren Historia



Office 2000, azaroan salgai



Windows 95 eta Word 6.0 euskaratu eta gero, eta Eusko Jaurlaritzak eta Microsoft etxek sinatu zuten akordioaren ondoren, Elhuyarrek eta UZEIk Windows 98 eta Internet Explorer 4.0 itzuli zuten. Orain, Office 2000-ren txanda heldu da, Microsoft-en aplikazio berria.

Pakete berriak "Microsoft Office 2000 Standard" du izena eta bost aplikazio biltzen ditu, horietarik lau euskaraz: Microsoft Word testu prozetzailea, Excel kalkulu orria, Outlook agenda eta posta elektronikoa kudeatzeko sistema, eta Internet Explorer 5.0 nabigatzailea. Paketeak, gainera, Power Point-en bertsio berria ere badakar, nahiz eta gaztelaniaz.

Eusko Jaurlaritzaren eta Microsoft-en

arteant lorturiko akordioaren bidez, aplikaziorik erabilienak euskaraz ditugu honezkero. Berez, merkatuan dauden PC-en ehuneko 90ean Office da nagusi.

"Microsoft Office 2000 Standard" azaroan izango da salgai ohiko salmenta-guneetan: El Corte Inglés, Ei Computers, Eroski, Alcampo, Pryca, eta Bilintx, Urretxindorra, Arriaga eta Xalbador liburudendetan. 60.000 pta. inguru balioko du.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

EUROPAKO PROIEKTUA

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak *Language Use Surveys in the Language Planning Process* izeneko proiektuan parte hartu du, Irlandako Institiud Teangeolaiochta Éireann, Galesko Canfan Ymchwil Cynru, Kataluniako Institut de Sociolingüística Catalana, Galiziako Real Academia Galega eta Frisiako Berie foar it Frysk erakundeekin batera.

Ikerlanaren helburua soziolinguistikazko inkestean garrantzia hizkuntza-plangintzan aztertzea da, hau da, proiektuan parte hartu duten Europako hizkuntza-erkidegoetan egin diren ikerketa soziolinguistikoko nagusiak kon-tuan izan dira eta euren hizkuntza-plangintza gauzatzeko orduan nola erabili diren aztertu da.

Europako Batzordeak diruz lagundutako ikerketa 1998ko martxoan hasi zen eta 1999ko urrian bidali da batzorde hartara. 1996tik hona, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Europa mailako beste hainbat proiektutan hartu du parte eta ikerketa soziolinguistikokoan ari den lantalde iraunkor baten kidea da, Frisia, Gales, Galizia, Irlanda eta Kataluniako ordezkariekin batera. Horiez gain, eta egin den ikerlan honetan, Eskozia, Okzitania eta Valentziako ordezkariak ere izan dira lantaldean. Jorratutako gaiek komunitate bakoitzaren hizkuntzak bizi duen egoera zehatza ezagutzeko balio izan dute. Era berean, eremu jakin batzuk (gazteak, harreman-sareak, eta lan-mundua) aztertu dira, eta ikerlanerako ereduak proposatu.